



## **BALIO PROPOSAMENA**

HYGGE Donostian kokatuta dagoen negozio bat da. Animaliekin harremanen bidez adopzioa bultzatzen duen kafetegia. Adopzioa bultzatzeaz gain, gure bezeroengan animaliekin kontaktuan egotearen onurak balioan jarri nahi ditugu.

HYGGEren esanahia hau da:

***“ekar ezazu gure bizitza beroago eta atseginagoa egiten duten gauza txiki horiek”***


Hitz gutxitan esanda, animaliak gutako askoren parte oso garrantzitsuak dira, zati bero eta atsegin. Gure eguna alaitzen eta lasaitzen duena haien presentziarekin.

Abandonu-tasari begiratuta, urtero, 285.000 animalia dira kalean bukatzen dutenak arrazoi askorengatik eta egia esanda oso gogorra iruditzen zaigu hori ikustea eta ezer ez egitea. Gure kafetegiak irtenbide bat bilatu nahi dio egitate honi lehen pausoa emanaz eta proiektu hau merkaturatuz.

Egunero milaka animalia ikusten ditugu haien bizitzak arriskuan jartzen janari pixkat batengatik (adb. errepideetatik pasatzen, kontaminatutako janaria jaten, intentzio txarrak dituzten pertsonekin tratatzen...) eta horrek pentsarazten digu nolako egoeran dauden kaleko animaliak.

Animalien ongizate legediak animalia konkretu batzuk edukitzeko ahalmena murrizten digu, honen arabera, txakurrak eta katuak edukitzeko bidea ematen digu. Arrazoi nagusia abandonu tasetan gehien agertzen diren animaliak txakurrak eta katuak direla da. Guk, legediaren arabera baimendu eta erregistratzen diren establezimendu bat gara, konpainiako animaliei aldi baterako edo behin betiko ostatua emateko jarduerak dituztenak eta adoptatzeko aukera ematen duena.

Bestalde, lege berriak, konpainiako animalien kontrolik gabeko ugalketa saihesteko arauak ezartzen ditu eta horregatik lehen esan dugun bezala, guk ditugun animalia guztiak esterilizatuak egongo dira. Kontrolik gabeko ugalketa saihesteko neurriak hartu beharko direla zehazten du, esterilizazioaren aldeko apustua eginez eta horrela animaliek jokabide erasokorrak izan ez ditzen.





Kafetegian dauden 8 animaliak elkarlanean gauden adopzio-zentroko 4 txakur eta 4 katu dira. Guztiak kastratuak daude, izan ere, horrela modu oldarkorreetan erreakzionatzeko aukera bazterten dugu eta baita hipotiroidismoa, aldakako displasia edota hainbat hezurretako arazoak edukitzeko aukerak murrizten ditu, baita minibizi batzuei, adibidez, bularreko minibizia. Minbizi hori hilgarria da txakurren %50ean eta katuen %90ean. Bestalde, denak amorruren txertoa edukiko dute jarrita infekzioaren eraginpean ez egoteko, izan ere, gizakiei transmititu daitekeen zoonosi bat da.


Nekatuta gaude ikusteaz pertsonak nola uzten dituzten animaliak alde batera, zaharrak direlako edota zikinik daudelako. Horregatik guk, Anne, Arantxa, Nahia eta Alex HYGGE Kafetegiaren bidez, ostalaritza-zerbitzua eskaintzeaz gain, behar den bultzada hori eskaintzen dugu jende askok animalia gaixo hauekiko duen uste okerra aldatzeko. Animalia hauek gaiztoak ez direla erakutsi nahi dugu, fidagarriak direla eta baita ere haiek gudan duten desconfiantza hori ezabatzea eta erlazio hori berreraikitzea.

Toki honen indargunea interakzioa da. Negozio kontzeptu berri bat da; jendeari beldur edo desconfiantza hori kendu nahi diogu guk eskainitako animaliekin denbora inbertituz.

Euskal Herrian sarri entzuten ez den berri bat da; asko behatu ondoren zihur esan dezakegu guk bezalako kafetegi bat ere ez dagoela Gipuzkoa osoan, eta hori aldatzeko ordua dela pentsatzen dugu.

Guk bi egongela nagusi izango ditugu, bat kafetegi bat dena eta bestea animaliei bideratuta dagoena. Era berean, animalientzako produktuen online katalogo bat izango dugu, bezeroek ikusi eta erosi ahal izan ditzaten.

Baita ere, ordutegi ezberdinak izango ditugu, bai kafetegira bideratuta dagoena, bai animaliekin interakziora bideratuta dagoena. Kafetegira bideratuta dagoena ez da eguardian itxiko, hau da, ordutegi jarraia (11:00-19:00) eta animaliei bideratutako ordutegia bitan zatituta dago animalien espazio pertsonala errespetatzeko (11:00-13:00/16:00-18:00).



Konpetentziarik handiena adopzio-zentroak izango lirakeke baina horri aurre egiteko guk eskaintzen duguna interaktuatzeko aukera da. Ez da ezertan konpetentzia asmorik izan behar, hau da, elkarlanean arituko gara adopzioa askoz errazagoa izateko. Normala da bakoitzak bere *confort* zonan gelditzea eta hortik ez ateratzea baina animalia bat adoptatzeko edota haiekin denbora pasatzeko kuriositatea edukita gure kafetegia bisitatzea aukera ona bat dela ziurtatzen dugu.



Adopzioa bultzatzeaz gain, oso bizi dauden gai batzuei buruz oso kezkatuak gaude; berotze globala eta animalien ongizatea. Horregatik, gure kasuan 13. helburua betetzen dugula esan dezakegu.



Atmosferako karbono dioxidoaren (CO<sub>2</sub>) eta beste berotegi-efektuko gasen mailak gora egin duela azken urteetan ez da misterio bat eta horrek ekarri dituen ondorio asko letalak eta oso larriak dira. Klima-aldaketak kontinente guztietako herrialde guztiei eragiten die. Sistema meteorologikoak aldatzen ari dira, itsasoaren maila igotzen ari da eta fenomeno meteorologikoak gero eta erradikalagoak dira. Horri aurre egiteko urtez urte egin diren ekintzak errespetatu eta jarraituko ditugu; birziklatzea, murriztea eta berrerabiltzea.